ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko martxoaren 28a, asteazkena • 37 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MEZKIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin-betiko onartzea hondakin uren saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza

Kontzeju honek, 2017ko abenduaren 21eko bilkuran, hasierako onarpena eman zion hondakin uren saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza onartzeko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Ondorioz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarrienak, 70.2 eta 111. artikuluetan eta 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezartzen dutenaren ildotik, ordenantza argitaratzen da, indarrean jar dadin.

Hondakin uren saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorra

1. artikulua. Mezkiako Administrazio Batzarrak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen Foru Arauaren 6.b) eta 35.b) artikuluetan jasotakoaren arabera dauzkan ahalmenez baliatuz eta hori Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 1. artikuluarekin loturik, ordenantza honen enuntziatuan aipatzen den tasa ordainaraziko du.

2. artikulua. Ordenantza hau jurisdikzio osoan aplikatuko da.

3. artikulua. Estolderia izan behar duen eraikin bat egin nahi duen pertsona edo erakunde orok administrazio batzarreko lehendakariari edo fede emaileari jakinaraziko dio sare nagusira lotzeko asmoa duela.

Horretarako, eskatzaileak obretarako udal baimena aurkeztu beharko dio administrazio batzarreko lehendakariari.

4. artikulua. Administrazio Batzarrak egingo du hornikuntza eta saneamendu sare nagusira lotzeko lanak, batzarrak berak ezarrita dauzkan arauei jarraituz. Hartunea bide publikoetatik edo ezarritako zortasun zonetatik egingo da. Esandako hartune lanaren kostua eskatzaileari ordainaraziko zaio. Kobrantza hori obra egin baino lehenago egingo da, kontrata bati eskatutako eta Mezkiako Administrazio Batzarrak onartutako aurrekontua oinarri hartuz.

Era berean, saneamendu sarea egin ondoren, hura administrazio batzarrarena izango da, eskatzailearen finkaren barruan dagoen zatia izan ezik.

II. Zerga gaia

5. artikulua

1. Hona hemen tasaren zerga egitatea:

a) Estolderia sare orokorrean egin beharreko hartuneak baimentzeko baldintza tekniko eta administratiboak betetzen diren ala ez egiaztatzeko jarduera.

b) Iraizkinak, euri urak, ur beltzak eta hondakin urak tokiko estolderia sarearen bidez bideratzeko zerbitzua eta haiek arazteko tratamendua.

c) Ikuskatzeko eta ezaugarri teknikoak egiaztatzeko lanak eta, oro har, 4. artikuluan adierazten direnak.

2. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango hondatutako finkek, aurri egoeran deklaratutakoek edo orube edo lurzoru direnek.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

3. Hartunetzat ulertzen da kasuan kasuko higiezinetik ateratzen den adarra edo, hala badagokio, hodi biltzailea, administrazio batzarraren estolderia sare orokorraren hodi biltzailera bideratzen dituena ur zikinak, hondakin urak edo antzekoak.

III. Subjektu pasiboa

6. artikulua

Hauexek dira subjektu pasibo zergadunak:

1. Arabako zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak:

a) Sarean hartunea egiteko baimena emateko bada, finkako bizileku erabilgarriaren jabea, gozamenduna edo titularra.

b) 5.1.b artikuluaren zerbitzuak emateko bada, kontzejuko finken okupatzaile edo erabiltzaileak, zerbitzu horiek jasotzen dituztenak hain zuzen, zernahi direla ere: jabe, gozamendun zein errentadun, baita prekarioko erabiltzaile ere.

2. Edonola ere, etxebizitza edo lokalen okupatzailearen edo erabiltzailearen ordezko subjektu pasiboa izango da higiezin horien jabea, eta, hala balegokio, zerbitzuaren onuradunei jasanarazi ahal izango dizkie berek ordaindutako kuotak.

7. artikulua. Erantzuleak

Subjektu pasiboaren zerga betebeharrengatik era solidarioan erantzungo dute Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 41. eta 42. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek.

IV. Zerga oinarria

8. artikulua. Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, tarifan ezarritako moduan.

V. Kuota

9. artikulua

Zerga kuota:

1. Estolderia sare orokorrarekin lotzeko lizentzia edo baimenaren zerga kuota behin bakarrik eskatuko da, eta eranskinean agertzen den kopurua ordainduko da.

2. Estolderia eta arazketa zerbitzuak emateagatik eskatu beharreko zerga kuota zehaztuko da finkan erabilitako ur kopuruaren arabera, metro kubotan neurtuta. Horretarako, eranskinean agertzen den tarifa aplikatuko da.

10. artikulua. Salbuespenak eta hobariak

Ez da inolako salbuespenik egingo, ez eta inolako hobaririk aplikatuko ere, tasa hau kobratzean.

VI. Sortzapena

11. artikulua

Obligazioa sortzea:

1. Zerga gaia eragiten duen udal edo jurisdikzio jarduera hastean sortzen da tasa eta tasa hori ordaindu beharra. Hona hemen noiz jotzen den hasitzat:

a) Hartunearen baimen eskaera aurkezten den egunean, subjektu pasiboak berariaz hala eskatzen badu.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

b) Hartunea udal estolderia sarean egiten den unean bertan. Hartunearen baimena lortu zein ez sortzen da tasa mota hori ordaindu beharra; hala ere, baimen hori emateko, administrazio espedientearen hasiera izapidetu daiteke.

2. Kontzejuko finka guztietarako derrigorrezkoak dira iraizkinak, euri urak, ur beltzak eta hondakin urak husteko zerbitzuak, bai eta horiek araztekoak ere, baldin eta estolderia dagoen kaleetara, plazetara edo bide publikoetara ematen duten fatxadak badauzkate, betiere sarearen eta finkaren arteko distantzia ehun metro baino gehiago ez bada. Nahiz eta interesdunek ez egin sarearekiko hartunerik, ordaindu egin beharko dute tasa.

VII. Kudeaketa

12. artikulua. Estolderia zerbitzua kudeatzeko lana Mezkiako Administrazio Batzarrak egiten du; hain zuzen ere, hondakin urak araztu eta hobi septikoak eta estolderia sareak garbitu. Ez da garbituko sare orokorrerako hartuneen buxadurarik, eta beste edozein zerbitzu ere ez da emango.

1. Zergadunaren ordezko diren subjektu pasiboek altaren eta bajaren aitorpenak egin beharko dituzte tasaren subjektu pasiboen erroldan, finkaren titularitatea aldatzen den egunetik hurrengo hilaren azken egunera bitartean. Azken aitorpen horiek eragina izaten hasiko dira altaren eta bajaren aitorpenak egiteko epea amaitu ondoren egingo den lehenengo likidazioaren egunetik aurrera. Erroldan lehenengo aldiz sartzea ofizioz egingo da, sarearekiko hartunea egiteko baimena eman ondoren.

2. Tasa honetarako eskatutako kuotak edateko uraren hornidura eta kontsumoaren ordainagirien aldi eta epe beretan likidatu eta kobratuko dira.

3. Hartunearen baimena tartean badago, zergadunak hartarako eskaera egingo dio administrazio batzarrari, hari eskatuko dizkio zerga zerbitzuak, eta baimena eman ondoren administrazio batzarrak berak egingo du likidazioa, zeina jakinarazi egingo baita zuzeneko diru sarrera egiteko Dirubilketako Arautegi Orokorrak adierazten duen moduan eta epeetan.

VIII. Arau hausteak eta zehapenak

13. artikulua. Zergen arau hausteak kalifikatzeari dagokion guztian, bai eta arau hauste bakoitzari dagokion zehapenen kasuan ere, Arabako zergei buruzko Arau Orokorrak xedatutakoari jarraituko zaio.

IX. Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Eranskina

Tarifa:

Tarifa seihilekoa izango da, xehetasun hauen arabera:

A) Saneamendu zerbitzua eskaintzeagatik:

Zerbitzu kuota finkoa: 4 euro/kontagailu/seihileko.

Tarifa ur kontsumoaren ordainagiri berean aplikatuko da. Saneamendu zerbitzua daukaten kontagailuetarako baino ez.

Mezkia, 2018ko martxoaren 16a

Lehendakaria
JUAN CARLOS RUIZ DE MENDOZA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.28 05:20:52 Z